

NERBIOI IBAIZABAL ESQUALDEKO AGENDA 21 EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA



Udaltalde
Nerbioi Ibaizabal **21**

Jasangarritasun Bulegoa
Oficina de Sostenibilidad

Ekintza eta Jarraipen Plana

Dokumentuaren izenburua:	NERBIOI IBAIZABAL UDALTELDE 21 EKO ESKUALDEKO AGENDA 21 Eskualdeko Ekintza eta Jarraipen Plana
Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal laguntza teknikoa:	UTE Ondoan, S.Coop. Haizea Ikerketa S.L.
Hartzailea:	
Udaletxe parte-hartzaileak:	Arakaldoko Udala Arrankudiagako Udala Arrigorriagako Udala Basauriko Udala Etxebarriko Udala Galdakaoko Udala Orozkoko Udala Ugao-Miraballeseko Udala Urduñako Udala Zaratamoko Udala Zeberioiko Udala Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal
Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoa	
Orriak:	18
Hizkuntza:	Euskara
Bertsioa:	Behin betikoa
Entrega data:	2013ko Apirila

AURKIBIDEA

ESKUALDEKO EKINTZA PLANA	4
1. Sarrera.....	4
2. Ekintza Planaren xedea.....	4
3. Aalborg + 10 konpromisoak	4
4. Eskualdeko Ekintza Planaren formulazio elementuak	6
5. Eskualdeko Ekintza Planaren gauzaperen prozesua	6
6. Ikuspegia	8
7. Helmugak.....	9
8. Lerro estrategikoak, programak eta ekintzak (LPE).....	9
ESKUALDEKO JARRAIPEN PLANA	14
1. Jarraipen Planaren Xedea	14
2. Jarraipen Planaren Operazioak	14
3. Nork hartzen du parte Planaren kudeaketan?.....	17
4. Jarraipenerako Ereduaren proposamena.....	17

ESKUALDEKO EKINTZA PLANA

1. Sarrera

Eskualdeko Ekintza Plana, Agenda 21en oinarritzko elementua, Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko udalerriek **Jasangarritasunarekiko duten estrategia eta konpromisoa** da.

Nerbioi Ibaizabalgo eskualdeko herriek partekatzen dituzten **erronkei erantzuna ematea** da bere **helburua**, eskualde mailan ekin eta koordinatutako ekintzen bitartez.

Planaren iraunaldia **8 urtekoa** da. Honela epe labur, ertain eta luzera begira ekintzen garapen eta exekuzioko epealdi errealetara egokitzen den plangintzarako tresna izango da.

2. Ekintza Planaren xedea

Eskualdeko Ekintza Plana egitearen xedek ondorengoak dira:

- Eskualdeko Udalek Tokiko Jasangarritasunaren alde lan egiten jarraitzeko bere gain hartu duen konpromisoari erantzuna ematea, udalaz gaindiko ikuspuntutik.
- Biztanleria erabakitze-prozesuetan barneratu eta kultura parte-hartzailea handitu.
- Planifikaziorako tresna izan, eskualdeko mailako etorkizuneko ekintzak modu ordenatuan programatzeko.
- Diseinua egin ostean, kudeaketarako eta ebaluaketarako tresna izan, urteroko aurrekontuei lotuz.
- Udalaz gaindiko finantzaketa iturriak jasotzea erraztu.

3. Aalborg + 10 konpromisoak


Aalborg+ 10 konpromisoak Ekintza Plana formulatzerako garaian oinarritzko erreferentzia-esparrua da.

1. Gobernantza moduak: erabakiak hartzeko prozedurak demokrazia esku-hartzaileago baten bidez bultzatu.
2. Jasangarritasunaren aldeko Udal kudeaketa: udal-kudeaketarako programa eraginkorrak prestatu, diseinutik hasi eta ebaluazio eta ezartze fasera arte.
3. Natur ondasun komunak: natur ondasun komunak erabiltzeko aukera berak izan ditzagun zaindu, babestu eta bermatu.
4. Kontsumo eta bizimodu arduratsuak: baliabideak tentuz eta modu eraginkorrean erabiltzea erraztu eta kontsumo eta ekoizpen iraunkorrak bultzatu.

5. Hirigintza diseinatzea eta planifikatzea: hirigintza diseinatzen eta planifikatzen eginkizun estrategikoa izan eta ingurumen, gizarte, ekonomia, osasun eta kultur gaiak guztion onerako bideratu.
6. Mugikortasuna hobetzea eta zirkulazioa murriztea: garraioa, osasuna eta ingurumena bata bestearen menpe dagoela onartu, eta mugikortasun jasangarriko ereduak irmotasunez sustatzeko konpromisoa hartu.
7. Osasunaren aldeko tokiko ekintza: herritarren osasuna eta ongizatea zaindu eta areagotu.
8. Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra: ingurumenean kalterik egin gabe enplegua sor dezan tokiko ekonomia bizia sortu eta bermatu.
9. Berdintasuna eta justizia soziala: komunitate integratzaileak eta solidarioak bermatu.
10. Tokian tokitik mundu globalera: bakea, justizia, berdintasuna, garapen iraunkorra eta klima babestearen erantzukizun globala gure gain hartu.

4. Eskualdeko Ekintza Planaren formulazio elementuak

Eskualdeko Ekintza Planaren gauzapenak honako elementuak biltzen ditu:



Iturria: Norberak egina EAEko udalerrietan Tokiko Agenda 21 Ekintza Planak berrikusteko Gida Metodologikoan oinarrituta

5. Eskualdeko Ekintza Planaren gauzapen prozesua

5.1. Eragile inplikatuak

Tokiko Ekintza Planaren gauzapenean honako eragile eta organoek hartu dute parte:

- o **Lan teknikoak:** Aholkulari taldeak egindakoak, Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoaren lankidetzarekin.
- o **BARNE koordinazio eta partaidetza lanak:** udalerrri bakoitzeko Udal sail desberdinetako teknikariek bakarkako elkarrizketak eta talde politikoekin egindako batzarren bidez eta Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoko teknikariek nahiz udal desberdinetako arduradunenez osatutako Nerbioi-Ibaizabal Udaltalde 21 batzordeko kideekin izandako batzarren bitartez.

5.2. Metodologia

Lan programa 5 faseetan banatu da:

Proiektuaren zehaztapena eta abian jartzea, proiektua UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko Udaltalde Batzordeari aurkeztea eta eskualde mailan jarraituko den metodologia zehaztea.

1. Proiektuaren zehaztapena eta abian jartzea. Urrats honen barruan, proiektua bera Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalen Batzordeari aurkeztea jasotzen da, bai eta eskualde esparruan garatu beharreko lanaren metodologia zehaztea ere.
2. Planaren formulazio estrategikoa, helburu estrategikoak eta operatiboak zehaztuz, baita udalerrri bakoitzeko tokiko ekintza planen helburuetatik sortutako Eskualdeko Planaren ekintzak.
3. Ekintzen ezaugarritzea, Plana kudeaketarako benetako lanabesa izan dadin ekintzen definizio zehatz bat egitean datza.
4. Planaren jarraipena egiteko lanabesen diseinua eta jarraipena.
5. Eskualdeko Ekintza Plana eta Jarraipen Plana idaztea.

Tokiko Agenda 21 prozesuak, kontzeptuz eta filosofiaz, **barne** (udaletako teknikari eta politikariz osatua) **eta kanpo mailako** (herriko sektore ezberdinez osatua) **parte-hartze prozesu baten bitartez lagundua** egon behar du.

Ondorengo taulan prozesuan zehar garatutako **parte-hartze jarduerak** deskribatzen dira.

BARNE PARTAIDETZA	HELBURUA/GARAPENA
Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoarekin eta UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko Udaltalde Batzordearekin formulazio estrategikoa (2012ko Azaroa)	Formulazio estrategikoa Ekintza Planaren zirriborro baten diseinua
Ekintza Planaren egituraren diseinua Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoko teknikariek (2012ko Azaroa)	Ekintza planaren egituraren zirriborroaren ekarpenak eta helburu eta ekintzen proposamenak.
Nerbioi-Ibaizabal Udaltalde 21 Batzordearen batzarrak (2012ko Abendua-2013ko Otsaila)	Ekintza Planaren egituraren egiaztatzea. Ekintzen proposamenak eta balioztatzeak eta lerro, estrategia eta programen egokitzapena.
Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoko teknikariek ekintzen karakterizazioa	Ekintza Planaren definitutako ekintzen karakterizazioa.
Nerbioi-Ibaizabal Udaltalde 21 Batzordearen batzarrak Ekintza Planaren balioztatzea (2013ko Maiatza)	Ekintza Planaren egituraren balioztatzea eta egindako karakterizazioarena. Azken dokumentuaren onarpena.

Ezaugarritutako ekintzak biltzen dituen dokumentua Eskualdeko Ekintza Plana eta Jarraipen Planarekin batera formatu digitalean entregatzen dira.

6. Ikuspegia

Ondoren, Nerbioi-Ibaizabal eskualdeko 2020 ikuspegia aurkezten da:

“2020 urtean, Nerbioi-Ibaizabal, bizitza kalitate handia duen eskualdea da: ekonomikoki oparoa, gizarteari dagokionez bateratua eta ingurumen kalitatearekin. Bere udalerriek finkatutako lankidetzak mantentzen dute eta eskuragarri dituzten politikarik hoberenak erabiltzen dituzte jasangarritasunari, informazioari eta herritarren parte-hartzeari dagokionez. Administrazio eredugarri moduan, baliabideak, estrategia, planifikazioa eta ebaluazio publikoak eta ezagunak ditu. Konprometitutako, arduratsua eta jasangarritasunaren erronka nagusiekiko eraginkorra den biztanleria du.”

“Aireak, lurzorua eta urek kalitate handia dute. Baliabide hauen kontsumoa eraginkorra da. Ingurumen ondarea eta bioaniztasuna arduraz aintzat hartzen eta kudeatzen dira, bere hobekuntzarako, urtez urte. Klima aldaketaren aurkako jardueretan berezko planifikazioa du. Eraginkortasun energetikoa, aurrezteak eta berriztagarrien produkzioa, bai arlo publikoan zein pribatuan hedatuta daude. Energiarekiko eraginkorra eta gutxi kutsatzailea den mugikortasunaren kultura berriak, modu ez motorizatuetan, taldeko eta trenbideko harreman onuragarrietan gauzatzen da. Hondakinak, teknika berrienak erabiliz batu eta kudeatzen dira, gizartearen adostasun eta herritarren inplikazioarekin. Kutsadura akustikoa, aurreikusitako, gutxitu eta zaindu egiten da. Produkzio ehuna, bere lehiakortasunagatik, eko-efizientziagatik, eko-berrikuntzagatik, eskuragarri dauden teknika hoberenak aplikatzeagatik eta erantzukizun Korporatiboarekiko apustuagatik bereizten da.”

7. Helmugak

Eskualderako 2020 urterako onartutako Helmugak aurkezten dira:

LE.1. JASANGARRITASUN BALOREETAN OINARRITUTAKO INFORMAZIO, SENTSIBILIZAZIO ETA KOMUNIKAZIO IRISPENA SUSTATZEN DUEN ETA PARTE-HARTZEA ERRAZTEN DUEN TOKIKO KUDEAKETA GARATU

HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Herritarren parte-hartze ekimenetan, 300 parte-hartzaile baino gehiagoko urteko batez bestekoa lortu	Parte-hartzen duten urteko batez bestekoa

LE 2. LURRALDEAREN ETA NATURAREN KUDEAKETA SUSTATZEA, BERE BALIOAK KONPROMETITU GABE ESPAZIOAREN ERABILERA AHALBIDETUKO DUEN ETA HERRITARREN BEHARRIZANAK ASEKO DITUEN MUGIKORTASUNAREKIN

HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Eskualdeko 50 guneko toki edo kokaleku natural hobetu.	Leku kopuru, toki edo kokalekuak
Eskualdeko herriak beraien artean eta Bilborekin lotzen dituen oinezkoen eta bizikletentzako sare osoa edukitzea.	Sare osatua

LE 3. BIZIMODU ARDURATSUAK SUSTATU ETA ONDASUN NATURAL KOMUNEN ETA HONDAKINEN ERABILERA ETA KUDEAKETA ERAGINKORRA BULTZATU ETA KLIMA ALDAKETAREN AURKAN AURRERA EGIN

HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Hondakinen bilketa selektiboa % 55a lortu eskualde mailan	Selektiboki bildutako hiri hondakinen % /urtean.
2011rekiko berotegi efektua sortzen duten gasen isurketak % 12an murriztu.	Tn. Ekib./biz./urte
Jasangarritasun irizpideak jarraituz 10 ondasun edo zerbitzu eskualde mailan erostea lortzea.	Kontratu kopurua edo eta erosketak
Eskualdean kontsumitzen den energiaren % 40a, energia berriztagarrien bitartez lortutako kW eskualdean/kontsumitutako kW	Energia berriztagarrien bitartez lortutako kW eskualdean/kontsumitutako kW

LE.4. SARE LANA INDARTUZ INGURUAREKIN BAT EGITEN DUEN ETA TOKIKO ENPLEGUA BULTZATZEN DUEN EKONOMIA DIBERTSIFIKATUA ETA LEHIAKORRA GARATU

HELMUGAK 2020 URTERA BEGIRA	ERLAZIONATURIKO ADIERAZLEA
Eskualdeko 50 enpresa legalizazio proiektuetan edo eta bere jardueraren ingurumen-hobekuntzan hartzen parte-hartzea lortu.	Parte-hartzen duten enpresa kopurua.

8. Lerro estrategikoak, programak eta ekintzak (LPE)

LE.1. JASANGARRITASUN BALOREETAN OINARRITUTAKO INFORMAZIO, SENSIBILIZAZIO ETA KOMUNIKAZIO IRISPENA SUSTATZEN DUEN ETA PARTE-HARTZEA ERRAZTEN DUEN TOKIKO KUDEAKETA GARATU

Programa 1.1. Informazioa, heziketa, sentsibilizazioa eta jasangarritasunerako parte-hartzea

- E.1.1.1. Herritarren sentikortze eta ardura kidetasun kanpainak garatu jasangarritasunaren hainbat arlotan
- E.1.1.2. Eskualdeko udalerrietan eta Tokiko Agenda 21aren baitan parte-hartze ez presentzialeko mekanismoak diseinatu eta kudeatu
- E.1.1.3. Tokiko Agenda 21 prozesuak Eskolako Agenda 21 prozesuarekin koordinatu
- E.1.1.4. Eskualdeko udal teknikari eta politikariei zuzendutako jasangarritasuneko prestakuntza eta sentsibilizazio jarduerak garatu
- E.1.1.5. Azterketa eta dibulgazio gune izango den Eskualde mailako Jasangarritasun Behatokia sortu eta eguneratua mantendu

Programa 1.2. Eskualdeko herrialdeetan Tokiko Agenda 21aren kudeaketa aktiboa.

- E.1.2.1. Udalerrietako eta eskualdeko Tokiko Ekintza Planen kudeaketa aktiboa burutu
- E.1.2.2. Jasangarritasunarekin erlazionatuta interes partekatua dauden esparruetan informazioa elkarraldatzeko eta ekintza proposamenak sortzeko erakundeen arteko topaketa foroak lagundu
- E.1.2.3. Udal politiken eskualde mailako koordinazio/kontzertazio guneak garatu

LE.2. LURRALDEAREN ETA NATURAREN KUDEAKETA SUSTATZEA, BERE BALIOAK KONPROMETITU GABE ESPAZIOAREN ERABILERA AHALBIDETUKO DUEN ETA HERRITARREN BEHARRIZANAK ASEKO DITUEN MUGIKORTASUNAREKIN

Programa 2.1. Hiri paisaia eta interes ekologikoa eta paisajistikoa duten elementu eta guneak mantentzea, berreskuratzea eta balioan jartzea

- E.2.1.1. Eskualdeko ingurune naturalaren eta paisaiaren ezaugarritze ikerketak burutu, interesa duten guneak identifikatuz eta kontserbazio/berreskurapen jarduerak zehaztuz
- E.2.1.2. Ibai ertzen eta intereseko beste eremuen berreskurapen eta mantentzea egiteko jarduerak identifikatu, proposatu eta kudeatu
- E.2.1.3. Landaredi eta fauna inbaditzailea identifikatu, proposatu eta jarduerak kudeatu.
- E.2.1.4. Jasangarritasun irizpideak jarraituz aisialdirako ortuak abian jartzeko laguntza eman, ezagupenak eta lanabesak erraztuz.

E.2.1.5. Nerbioi, Ibaizabal eta ibaiadarretako Parke Linealaren gauzapena bultzatu

Programa 2.2. Mugikortasun fluxu eta gatazkei irtenbidea eman garraio publikoa hobetuz eta motorrik gabeko garraio moduak sustatuz

E.2.2.1. Eskualde mailan Bizkaiko Bizikleta Planaren garapena bultzatu

E.2.2.2. Garraio modu jasangarrien eskualde mailako sistema ezarri: bizikleten mailegua, car sharing, car pooling, eta beste

E.2.2.3. Eskualdeko Mugikortasun Planaren proposamenak jarraituz, Bizkaibuseko sareen berrantolaketa bultzatu hauek, tarifa eta ordutegiaren koordinazioaren barruan, RENFEko geltokiraino anezka zerbitzu bezala eraldatu daitezten.

E.2.2.4. Geltokietako azpiegituretako irisgarritasun Planak bete daitezten sustatu.(ADIF)

E.2.2.5. Oinezkoentzako ibilbideen garapenean laguntza eman hiru mailatan:

- Homologaturiko bidexken sarea.
- Herriak elkarrekin, auzoak edo interes guneak lotzeko herriko landa bidexkak (ez asfaltatuak) berreskuratu eta hobetzea.
- Herriak elkarrekin, auzoak edo interes guneak lotzeko herriko oinezkoen bidexkak (asfaltatuak) berreskuratu eta hobetzea.

Programa 2.3. Mugikortasuna sortzen den gune handietan, mugikortasuna hobetu (enpresak, ikastetxeak, ospitaleak, merkataritza guneak, eta abar.)

E.2.3.1. Mugikortasun sortzaile diren zentro handietan mugikortasun jasangarria bultzatzeko azterlan eta proposamenak burutu

E.2.3.2. Eskualdeko udalerrietako ikas zentroetan eskola bidearen proiektua garatu

LE.3. BIZIMODU ARDURATSUAK SUSTATU ETA ONDASUN NATURAL KOMUNEN ETA HONDAKINEN ERABILERA ETA KUDEAKETA ERAGINKORRA BULTZATU ETA KLIMA ALDAKETAREN AURKAN AURRERA EGIN

Programa.3.1. Hondakinei buruzko gaian aurrera egin tratamendu aurreratuago baterantz

E.3.1.1. Hiri-hondakinen frakzio bat edo batzuk biltzeko eskualde mailako zerbitzu bat jartzeko bideragarritasuna eta pilotajea gauzatu eta ahal bada ezarri

E.3.1.2. Gaikako bilketako modalitate desberdinen inguruko zerbitzuen pixkanakako zabaltzea, zatiki organikoari arreta berezia ipiniz: konpostajea, bosgarren edukiontzia edo beste

E.3.1.3. Garbigune mugikorraren zerbitzua garatu

- E.3.1.4. Hondakinen arloko sentikortze kanpainak burutu
- E.3.1.5. Eraikuntza eta eraipen hondakinen kudeaketa sustatu eskualde mailan

Programa 3.2. Energiaren kudeaketan hobekuntza eta klima aldaketaren aurkako borroka sustatu

- E.3.2.1. Eskualdeko udalerrri eta biztanleriaren kudeaketa energetikoa lagundu
- E.3.2.2. Urtero udalerrri guztien eta udalen jardueraren berotegi efektuko gasen inbentarioa /karbono aztarna kalkulatu
- E.3.2.3. Tokiko administrazioaren karbono aztarna egiaztatu
- E.3.2.4. Klima aldaketa arintzeko eta egokitzeko planak eta jarduerak gauzatu
- E.3.2.5. Eskualdeko energia berriztagarrietatik eratorritako ahalmena aztertu (biomasa, mini eolikoa, eguzki energia, geotermia, hidroelektrikoa, eta abar.)

Programa 3.3. Tokiko administrazioaren ingurumen hobekuntza sustatu eta bere eredugarritasuna

- E.3.3.1. Erosketa eta kontratazio publiko berdearen zerbitzu baten sorkuntza eta ezarpena
- E.3.3.2. Kudeaketa Sistemen Ziurtapenen bitartez edo bestelako errekonozimendu sistemen bitartez udal eta eskualdeko ingurumen errekonozimendua bilatu
- E.3.3.3. Udal administrazioaren ingurumen hobekuntzarako prozedura eta instrukzioak definitu eta sortu
- E.3.3.4. Eskuragarriak diren udal baliabideak partekatu eta elkarraldatzeko sistema bat antolatu

Programa 3.4. Tokiko Agenda 21aren prozesu barruan zarataren kudeaketa barneratu

- E.3.4.1. Eskualde mailako zarata mapa bat gauzatu
- E.3.4.2. Kutsadura akustikoa gutxitzeko ardura duten erakundeei hosgabetze neurriak hartzeko premiatiu
- E.3.4.3. Zarata kudeatzeko lanabesa eguneratua mantendu

LE.4. SARE LANA INDARTUZ INGURUAREKIN BAT EGITEN DUEN ETA TOKIKO ENPLEGUA BULTZATZEN DUEN EKONOMIA DIBERTSIFIKATUA ETA LEHIAKORRA GARATU

Programa.4.1. Enplegu berdea sustatu beste administrazio batzuekin elkarlanean

E.4.1.1. Prestakuntza programen eta eskualdeko enpresetan langileak txertatzeko programen exekuzioa

Programa 4.2. Ekonomi-ehunaren ingurumen hobekuntza sustatu

E.4.2.1. Ekonomi jardueri ingurumen arloan legeztatzen laguntzeko proiektuak

E.4.2.2. Ekonomia ehunean ingurumen aldagaia sustatu programa berezietan parte-hartuz.

E.4.2.3. Eskualdeko ekonomi ehunean erantzukizun korporatiboa bultzatu.

E.4.2.4. Enpresa pribatuek erosketa eta kontratazio publiko berdeko sistemak ezarri ditzaten proiektu bat gauzatu.

E.4.2.5. Jasangarritasunaren alde lan egin duten jarduera ekonomikoek eta eragile sozialek aitorpen publikoa jasotzeko sistema definitu eta ezarri

E.4.2.6. Eskualdeko eragile ekonomiko eta sozialekin elkarlanean gaur egungo eskaintzan kontsumo arduratsuagoa erraztuko duten produktuak eta praktikak ezar daitezen proiektuak diseinatu eta gauzatu.

ESKUALDEKO JARRAIPEN PLANA


1. Jarraipen Planaren Xedea

Iraunkortasunerako **Eskualdeko Ekintza Planaren ezarpenerako monitorizazio lanabesen zehaztapena egitea** du helburu Jarraipen Planak, proposamenen betetze maila eta hauen eraginkortasuna ebaluatuz, baita adierazleen kalkulua ere.

Horren bitartez, Ekintza Plana inguruabar eta egoera berrietara egokitzen joan daiteke, eskualdearen testuinguru sozioekonomiko eta ingurumenekoaren bilakaerara egokituz.

2. Jarraipen Planaren Operazioak

Ekintza Plana kudeaketarako erabateko tresna eraginkor moduan erabili ahal izateko, Udalsarea 21etik (Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea) aldizkako **hainbat aplikazio prozesuren integrazioa** sustatzen da, horien artean Tokiko Agenda 21 kudeatzeko eredu egokia sortuz.



TA21en Ekintza Planaren urteko kudeaketaren zikloa

Iturria: "Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21en ekintza planen urteko Programaziorako eta Ebaluaziorako Gida Metodologikoa". Ingurumen Estrategiaren Agiria Saila 60.zk. 2006ko Urria. Ithobe.

Eskualdeko Planaren kasuan, ziklo hau udal Planen antzeko moduan egingo da, eskualde mailan kalkulatu daitezkeen adierazleentzat.

Horrela, Ekintza Planaren urteroko kudeaketa ezartzeak, urtero jasangarritasun helburuen (iraunkortasun adierazleak) lorpenaren eboluzioa eta Tokiko Agenda 21ean burututako jarduerak (Planaren exekuzioaren ebaluaketa) baloratu eta komunikatzeko aukera ematen du, baita hurrengo urtean garatuko diren jarduerak zeintzuk izango diren erabakitzea (Planaren urteroko programazioa), ahal den neurrian udal aurrekontuei lotuta.

Eskualde mailako Jarraipenerako Planean aurreikusitako ekintzak hurrengo orriko taulan jaso dira.

OPERACIÓN ¹	DESCRIPCIÓN	OBJETIVO
BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN (BEG) INBENTARIOAREN KALKULUA	Berotegi-efektuko gasen Inbentarioaren kalkulua.	<ul style="list-style-type: none"> - BEG-en isurketen Inbentarioaren kalkuluak ondorengoa ahalbidetzen du: - Toki-administrazioko jardueraren ondorioz erregai eta elektrizitatearen kontsumoari eta garraioari dagokien isurketen banaketa ezagutzea. - Eskualdeari zuzenki loturiko jardueren isurketak ezagutzea.
ESKUALDEKO EKINTZA PLANAREN (TEP) BETETZE MAILAREN EBALUAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza Planak gauzatutako mailaren urteroko balorazioa eta azterketa da. - Ekintza bakoitzaren exekuzio mailaren ebaluazioak euren garapen egoeraren arabera sailkatzea ahalbidetzen du. Hortik abiatuz, Planaren ezarpen globalaren maila kalkulatu da. - Zenbait aldagaien arabera (lehentasuna, gaiak, tipologia) exekuzio adierazgarriak ere ateratzen dira; udalaren analisi ebolutiboa egiten eta hori beste prozesu batzuekin konparatzen uzten du. 	<ul style="list-style-type: none"> - Eraginkortasun handiagoa lortzearen, erabakiak hartzeko eta Planaren udal kudeaketaren orientazioa gauzatzeko informazio baliotsua eskaintzen du. - TEP-aren exekuzio mailaren ikuspegi orokorra eskaintzen du. - Informazioa biltzen du: programatu gabe egonik, ekintza edo helburuen garapenean laguntzen duten ekintzak sartzea ahalbidetzen du. - Hobekuntzak proposatzeko zailtasunak aurkezten dituzten atalak antzematea ahalbidetzen du. - Inplikaturik dauden agente ezberdinei politikoak, teknikoak, herritarrak-Eskualdeko Agenda 21en garapena komunikatzeko eta ezagutarazteko datu zehatzak eskaintzen ditu.
EMAITZAK JAKINARAZTEA	<p>Behin iraunkortasunaren adierazgarrien eta BEG-en kalkulua eta ezarpen mailaren ebaluazio prozesua bukatu eta gero, lortutako emaitzak Tokiko Agenda 21-i lotutako aktore taldeari komunikatzea beharrezkoa da:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Planean inplikaturik eragile teknikoak - Nerbioi-Ibaizabal Udaltalde 21 Batzordeko kideei - Herritar zein gizarte eta ekonomi eragileei 	<p>Barne komunikazioaren bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Emaitzak, Udaltalde 21 batzordeari eta Eskualdeko Jasangarritasun Bulegoko teknikariei jakinaraztea. <p>Kanpo komunikazioaren bitartez:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskualdeak iraunkortasunaren alde egiten duena herritarrei aldizka komunikatzen laguntzea, egiaztatutako informazioan oinarriturik.
EKINTZEN	Hurrengo urtean Ekintza Planaren ezarpenean lagunduko duten egin beharreko jarduerak definitzea; erreferentzia	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza Planaren hainbat urtetako planifikazioa UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko

¹ Ekintza guztiek urteroko periodikotasuna dute, Ekintza Planaren Berrikuspenak salbu, zeinak 8 urte bitarteko maiztasuna duen.

OPERACIÓN ¹	DESCRIPCIÓN	OBJETIVO
PROGRAMAKETA	moduan Planari dagokion urterako planifikatutako ekintzak eta ebaluaziotik jasotako emaitzak hartuko dira.	Udaltalde Batzordearen kudeaketari lotzea. <ul style="list-style-type: none"> - Planaren exekuzioa jarduteko beharren eboluziora eta eskura dauden giza baliabideetara eta baliabide ekonomikoetara modu egokiagoan doitzea. - Planari lotutako proiektu eta jarduerak formulatzea hurrengo urtean zehar udalaz gaindiko finantzazioaren bilketara bideratuta daudenak.
EKINTZA PLANAREN BERRIKUSPENA	Aurrekoa ordeztuko duen hainbat urteko Ekintza Plan berria lantzea.	Ondorengo ahalbidetzen du: <ul style="list-style-type: none"> - Planaren helburu zein ekintzak jasangarritasunari loturiko arloen eboluzio juridiko, tekniko, ekonomiko eta sozialera egokitzea. - Gaikako esparruen arabera, Planaren jardueren ezarpen mailara doitzea. - Eskualdearen ingurumen eta gizarte eboluziora moldatzea.

3. Nork hartzen du parte Planaren kudeaketan?

Ekintza Planaren kudeaketa prozesuan beharrezkoa da ondorengo konpromisoa:

IRUDIA	DEFINIZIOA	ROLA
PROZESUAREN KOORDINATZAILEA ESKUALDE MAILAN	Tokiko Agenda 21en kudeaketara lotutako UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko arduradun teknikoa.	<ul style="list-style-type: none"> • Prozesu osoa erraztea eta sustatzea. • Prozesuan inplikaturako eragile multzoarekiko komunikazioa, laguntza eta jarraipena. • Programazio txostena egitea. • Udalsarea 21ekin komunikatzea. • Eraitzen txostenaren tratamendua eta lantze prozesua.
INPLIKATURAKO ERAGILEAK	Eskualdeko Bulegoko teknikariak zein Eskualdeko Ekintza Planaren buruketan inplikaturiko udal teknikari edo hautetsiak, enpresa, entitate edo eskualdeko beste erakunde zein udal eskuduntzak bere gain dauzkatenak.	<ul style="list-style-type: none"> • Buruturiko Ekintza Planari loturiko jarduera guztien identifikazioa. • Integratutako eta ebaluatutako jardueren ondorengo balidazioa. • Planera lotuta egin beharreko jardueren formulazioa eta dagokion kostua.

4. Jarraipenerako Ereduaren proposamena

Jarraian prozesuaren jarraipena egin ahal izateko eredu bat aurkezten da.

Maila	Organoa	Izaera	Funtzioak
Eskualdekoa	UT21 Nerbioi-Ibaizabaleko Udaltalde Batzordea	Mixtoa (UT21 Nerbioi Ibaizaleko kide diren udaletako udal arduradun eta arduradun politiko eta teknikoz integratua)	Informazioa, jarraipena eta parte-hartzea eskualde mailan